

Udal Gobernu haustear


Odon Elorza alkateak ultimatuma eman die udal gobernukideei. Martxoaren 25eko bilkuran PPK Auditiz Akularreko proiektuari bide egiten ez badio, PSE-EEK Udal Gobernu ituna apurtutzat emango du. PP ez dago Auditiz Akularreko plana bere horretan onartzeko prest.

Donostiako Udalean PPren eta PSE-EEren arteko liskarrak ez dira berriak. Funtzionarioen euskalduntze plana, Tabakalera eta San Telmoko proiektuak, Kontxako bidegorria, Cristina Enea zaharberitzeko proiektua, Igeldoko babes ofizialeko etxebizitzaren auzia... Asko izan dira desadostasuna eragin duten gaiak. Azken liskarra Auditiz Akularrekoa izan da. Plana aurrera eramateko ikusmolde ezberdinak baitituzte gobernukideek. Ikuspegi eta interes ezberdinak antzematen dira aspaldian.

Joan den asteartean Gobernu Itunaren Segimendu Batzordea eta Udal Gobernu bildu ostean, Odon Elorza alkateak komunikabideak deitu zituen. Prentsurrean adierazi zuen Udal Gobernu *"krisi larrian"* dela. Hala, PPri hordagoa jo zion: martxoaren 25ean egin beharreko Udalbatzaren osoko bilkuran, PPK Auditiz Akularreko proiektuaren aurkako botoa ematen badu, Udal Gobernu ituna nahita apurtu duela pentsatuko du PSE-EEK. Elorzak PPri eskatu dio gai honen inguruan orain arte izandako jarrera alda dezala. Beraz, *"PPk atzera egiteko bi aste"* dituela azaldu du Elorzak.

Ez dirudi PPK jarrera aldatzeko asmorik duenik. Maria San Gil PPko bozeramaileak esan duenez, 25eko plenoan orain arteko jarrera mantenduko dute. Alkateari *"txantxia eta inposaketa politika"* egitea leporatu dio. San Gilen ustez, argi dago arazoa ez dela Auditiz Akular. PPren hitzetan,

Oposizioak Udaletik kanpoko arrazoiak ikusi ditu krisialdian



Martxoak 25, eguna ote?

Udalbatzaren eta Udal Gobernuaren Auditiz Akularren inguruan hainbat kalabaza jaso ostean, hurrengo Udalbatzara eraman nahi du PSE-EEK berriro gaia. Bilkurarako delaldi ofiziala oraindik egin ez den arren, martxoaren 25ean izango dela iragarri dute jada. PSE-EEren eta PPren jarrerak izugarri aldatzen ez badira, ituna egun horretan hautsiko da. Duela hilabeteak hasitako haustura irudikapenaren azken agerrialdia izan daiteke.

"funtsean gai politikoa da, alkateak beti izan baitu gurekin ez agintzeko nahia eta nazionalistengandik hurbilago egoteko asmoa".

Udaletik kanpoko arrazoiak

Oposizioko alderdiak ere bat datoz liskarraren atzetik Udaletik kanpoko arrazoiak daudela esaterakoan. EA-EAJk dio gobernukideak *"zirko saio lotsagarria"* eskaintzen ari direla. *"Aitzakia faltsu gisa herritarren interesak aipatuta, Odon Elorza beste hordagoa jotzen ausartu da. Argi dago honen muinean Udaletik kanpoko arrazoi politikoak eta hauteskunde kalkuluak daudela"*, adierazi du Enrique Arana EA-EAJko zinegotziak.

Batasunak ere udal hauteskundearen hurbiltasunaren usaina ikusi du liskarraren atzean. *"Elorzak eta San Gilek interes pertsonal eta partidistak donostiarren interesen aurretik jartzen dituzte. Gobernu ituna bertan behera uzteko erabakia euren alderdietako zuzendaritza nagusien erabakia da"*, adierazi du Batasunak.